

emon ta zabal azku



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ueu

udako
euskal unibertsitatea

Graduondoko
berezko titulua

UNIBERTSITATEKO ESPEZIALISTA: LURRALDEA ETA HIZKUNTZA

Erabilera linguistikoaren ebaluazioa

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Lurralde eta Hizkuntza: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa graduondokoa Euskal Herriko gizartearen dagoen kezka berri bati erantzutera dator, urbanizazio-prozesuen eragina hizkuntza-aldaketan (bereziki euskararenean) aztertu nahi baitu. Gaiarekiko gizarte-kezkaren erakusle aipatu daitezke 2014an, 2015ean eta 2016an UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko Carlos Santamaria zentroan antolatutako hiru kongresu arrakastatsuak, 2014an eta 2015ean antolatutako bi MOOC-ikastaroak, eta horiei segida espezializatuagoa eman dien 2016/2017 ikasturtean harrera ezin hobeaz emandako graduondokoa. Interes profesionalari dagokionez, graduondokoak aipatutako kezkatik eratorritako behar bati erantzungo dio, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioak (ELE) egiteko adituak prestatuz. Ebaluazio horiek ohikoak dira beste herrialde batzuetan (esaterako, Galesen), eta, Euskal Herrian jada eskatzen hasiak dira (adibidez, Ondarroako eta Orioko Hiria Antolatzeko Plan Orokorren ELE bat egitea eskatu da). Hortaz, euskal gizarteak ELEak egiteko adituak behar ditu, eta graduondokoak hutsune hori betetzen du.

HELBURUAK

Graduondokoak jakintza berri bat sortzea du helburu, orain arte gehiegi kontuan hartu ez den harreman batean sakonduz: lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren eragin soziolinguistikoan, jakintza-alor zabal horiekin zerikusia duten beste zenbait esparru ere ahaztu gabe (sozioekonomia, hizkuntz ekologia, zuzenbidea...). Hortaz, graduondokoak Euskal Herriko gizartearen garapen kulturala aztertzea eta eraldatzea du xede, haren ondare immaterial nagusi den euskara zentrotzat joz. Proposamenak nazioarteko ezagutza ere sustatzen du, hizkuntza minorizatuen galerarekiko kezka azaldu duten zenbait azterketa-kasuren bidez (Gales, Flandria, Aland uharteak, Korsika...). Halaber, graduondokoak erakunde publiko eta pribatuekiko harremana lantzen du, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua eta Kutxa Ekogunea haren suspertzaile diren heinean, UPV/EHU antolatzailea izanda. Gainera, laguntzaile moduan, beste zenbait erakunde ere aritzen dira graduondokoan parte hartzen: Soziolinguistika Klusterra, Gaindegia, Jakin...

SARBIDEA

Edozein gradu edo lizentziatura duten ikasleak eta profesionalak onartuko dira. Hala ere, gomendagarria da interesa izatea tituluaren adskripzio orokorreko hiru jakintza-arloekiko (edo, gutxienez, arlo batekiko): Administrazio Zuzenbidea, Hizkuntzalaritza Orokorra, eta Hirigintza eta Lurralde Antolakuntza.

IRTEERA PROFESIONALAK

Lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren eragin soziolinguistikoan zein jakintza-alor zabal horiekin zerikusia duten beste zenbait esparruetan ere (sozioekonomia, geolinguistika, hizkuntz ekologia, zuzenbidea, antropologia, demolinguistika...) aritzeko adituak prestatuko dira.

ONARRIZKO INFORMAZIOA

Non emango den:	Gratuondokoaren erdia aurrez aurrekoa izango da, UEUren Ikasketxe Nagusian (Eibarren), eta beste erdia online izango da UEUren Ikasgela Birtualaren bitartez
Irakaskuntza mota:	Erdia eskolan bertakoa eta beste erdia online.
Zer hizkuntzatan emango den:	Euskara.
Gutxi gorabeherako prezioa:	1.200 €.
Gutxi gorabeherako egutegia:	2017ko urriaren 20tik, 2018ko uztailearen 15era.

IKASTORDUAK / IRAUPENA

Nahitaezko Gaiak 24 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak 0 ECTS kreditu	Titulazio Amaierako Lanak / Proiektuak 6 ECTS kreditu	Guztira 30 ECTS kreditu
--	---	---	-----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Sarrera: Lurraldea eta Hizkuntza (3 ECTS kreditu)
- Diziplinarteko teoriak: Soziolinguistika (3 ECTS kreditu)
- Diziplinarteko teoriak: Sozioekonomia (3 ECTS kreditu)
- Diziplinarteko teoriak: Lurralde-antolakuntza eta Hirigintza (3 ECTS kreditu)
- Diziplinarteko teoriak: Zuzenbidea (3 ECTS kreditu)
- Diziplinarteko teoriak: Hizkuntza-ekologia (3 ECTS kreditu)
- Lurraldetasun praktikak: Tresnak (3 ECTS kreditu)
- Lurraldetasun praktikak: ELE Tailerra (3 ECTS kreditu)

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Unai Fernández de Betoño

Tel.: 943015928

Posta elektronikoa:

unai.fernandezdebetono@ehu.eus

Masterreko idazkaritza:

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

Tel.: 943821426

Posta elektronikoa: titulazioak@ueu.eus

Elkarte laguntzailea: Ainhoa Latatu

Tel.: 943821426

Posta elektronikoa: a.latatu@ueu.eus